



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

---

2025ko lehen hiruhilekoa



**LABORAL**  
kutxa

# AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera .....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak .....	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak .....	13
Eranskina – Indizeak .....	19
Eranskina – Metodologia .....	23
Fitxa Teknikoa .....	26

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

---


- EAEko familiek neutraltasunetik gertu mantendu dute konfiantza
- aldiz, Europako familiak ezkorragoak dira (aldaketarik gabe)
- Europako beste herrialde batzuetan baino ezkortasun txikiagoa dute EAEko familiek

# 1 EAEko familiek neutraltasunetik gertu mantendu dute konfiantza

Urteko lehenengo hiruhilekoan neutraltasunetik gertu eta egonkor mantendu da EAEko familien konfiantza maila (-4), eta 2024an zehar erregistratutako balioen (-5, -3, -4 eta -2) antzekoak erregistratu dira. Dena den, behera egin du apur bat (-2 puntu), baina urrun dago 2022an eta 2023an izandako mesfidantza mailatik. Hurrengo hiruhilekoetako emaitzek erakutsiko dute 2025ean zehar konfiantza mantenduko den edo behera egiten jarraituko duen. Hala, baliteke 2025a EAEko familien konfiantzaren argazki okerragoarekin amaitzea.

Konfiantzaren beherakada txiki horren arrazoiak, batez ere, familiaz kanpokoak dira. Adibidez, nazioarteko ziurgabetasun politikoa –Trumpen Administrazioaren inpaktua–, gerragatazkak konpontzeko ezegonkortasuna eta inflazioaren gorakada (posiblea).


Kontsumitzaileen konfiantza. EAE



## 2 | aldiz, Europako familiak ezkorragoak dira (aldaketarik gabe)

EAEko familiak baikorragoak dira EB-27ko familiak baino (-4 eta -13, hurrenez hurren). 2021eko bigarren hiruhilekoaz geroztik errepikatzen da egoera hori. Hala, ezkorragoak diren arren, Europako familiak egonkorrago eta ia aldaketarik gabe mantendu dira azken lau hiruhilekoetan (-13, -12, -12 eta -13, 2024ko bigarren hiruhilekotik 2025eko lehenengo hiruhilekora). Eraitza horiek, ezkorrak izan arren, 2022an eta 2023an zehar erregistratutakoak (-22 eta -17, urteko batezbestekoak) baino hobekak dira, baina urrun jarraitzen dute EAEko familien “konfiantza handiagotik”.

Ildo horretan, hazkunde ekonomikoaren zifrek Espainiako ekonomiaren (+%3,8) eta euskal ekonomiaren (+%2,2) portaera hobea berresten dute, Europako ekonomiaren hazkunde txikiagoarekin alderatuta (+%1,1), Alemaniaren portaera txarragoak baldintzatu baitu (-%0,3).



1. European Economic Forecast, Autumn 2024 (Europako Batzordea). 2024ko azaroaren 15ean argitaratua.


2. EB-27ko 2025eko lehenengo hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urtarrila-otsaila batezbestekoa. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat.

### 3 | Europako beste herrialde batzuetan baino ezkortasun txikiagoa dute EAEko familiek

EAEko familien ezkortasuna, argi eta garbi, baxuagoa da Europako erreferentziazko herrialdeetako baino. Urteko lehen hiruhilekoan, hala ere, denetan egin du okerrera konfiantzak. Hala, Danimarkako familien ezkortasuna da baxuena (-10), eta ezkortasun apur bat handiagoa dute Alemaniak (-12), Frantziak (-13) eta Herbehereek (-16).

Lehenengo hiruhilekoan, okerrera egin zuen Alemaniako (-2 puntu), Danimarkako (-4 puntu) eta Herbehereetako (-4) familien konfiantzak. Aldiz, Frantziak hobekuntza txiki bat izan zuen (+2 puntu), baina abiapuntuko erregistroa okerragoa zen. Hala, nolabaiteko ezkortasun maila partekatzen dute herrialde horiek, nazioarteko ezegonkortasunak eta herrialde bakoitzaren barneko egoerak eraginda.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak<sup>1</sup>



1. 2025eko lehenengo hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urtarrila-otsaila batezbestekoa

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGAIK


---

- okertu egin da EAEko familiek ekonomia orokorraren gainean duten konfiantza
- baikorrek langabeziaren bilakaerarekiko
- familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko nolabaiteko eszeptizismoaren barruan
- eta aurrezteko igurikimenak positiboak dira oraindik
- konfiantzaren lau osagaietatik hiru mantendu egin dira

## 4 | Okertu egin da EAEko familiek ekonomia orokorraren gainean duten konfiantza

Ondoz ondoko bost hiruhilekoz hobera egin ondoren, ekonomia orokorraren gaineko igurikimenek okerrera egin dute berriz ere, eta ezkortasuna nabarmendu da 2025aren hasieran (-19; -6 puntu). Datozen hiruhilekoetako emaitzek zehaztuko dute ekonomia orokorraren gaineko konfiantzaren galera hori puntuala den edo finkatu egingo den, datu makroekonomikoak okertzen hasten direnean (nazioarteko ziurgabetasuna); horrek baldintzatu egingo ditu EAEko familien igurikimenak.

Familia gutxiagok uste dute egoera ekonomikoak hobera egingo duenik (% 12,0; ehuneko -3,7 puntu) edo mantendu egingo denik (% 45,0; ehuneko -4 puntu). Aldiz, gora egin du egoerak okerrera egingo duela uste duten familien kopuruak (% 43,0; ehuneko +7,7 puntu). Horregatik erregistratu da konfiantzaren beherakada. Emaitza hori ez dator bat EAEk 2024an izandako hazkunde ekonomikoaren datuekin (+% 2,2); aurreikuspenak gainditu zituen hazkunde hark. Dena den, 2025eko aurreikuspenak (% 2,0) betetzea izango da erronka, horiek zalantzan egon baitaitezke.






## 5 | baikorrak langabeziaren bilakaerarekiko

Langabeziaren bilakaeraren gainean baikorrak izanez hasi dute 2025a EAEko familiek, eta balio positiboetan mantendu dira ondoz ondoko bosgarren hiruhilekoz. Gainera, 2022ko bigarren hiruhilekoaz geroztiko baliorik altuena eskuratu dute.

EAEko familien erdien ustez, langabezia oraingo balioen antzekoetan mantenduko da datozen hamabi hilabeteetan zehar (% 49,0; ehuneko -1,1 puntu). Familien heren batek uste du langabeziak behera egingo duela (% 31,6; ehuneko +0,2 puntu), eta hamarretik bik baino apur batek gutxiagok (% 19,4; ehuneko +0,9 puntu) aurreikusten dute datorren urtean zehar gora egingo duela langabeziak.

Igurikimen horiek koherenteak dira lan-merkatuaren adierazleekin (urtarrileko-otsaileko batezbestekoa). Adierazle horiek positiboak dira oraindik: afiliazioa milioi bat kotizatzailetik gora mantentzen da (1.016.202) –apur bat jaitsi da 2024ko aldi berarekin alderatuta (-% 0,6)–, eta erregistratutako langabezia 108.907 pertsonara igo da (+% 0,9).




## 6 | familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko nolabaiteko eszeptizismoaren barruan

EAEko familiek nahiko igurikimen egonkorak dituzte familiako egoera ekonomikoaren gainean. Azken hiruhilekoetako eszeptizismoa mantentzen da, baina apur bat jaitsi da urteko lehenengo hiruhilekoan (-6; -2 puntu).

Zehazki, emaitzek erakusten dutenez, gora egin du euren egoera ekonomikoak okerrera egingo duela uste duten familien ehunekoak (% 19,8; ehuneko +3,2 puntu). Aldiz, behera egin du egoera ekonomikoa mantendu egingo dela uste duten familien ehunekoak (% 70,5; ehuneko -3,3 puntu), eta egonkoritu egin dira datozen hamabi hilabeteetan euren egoera ekonomikoak hobera egingo duela uste duten familiak (% 9,7; ehuneko +0,1 puntu).

Familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak enpleguaren, diru-sarreraren eta prezioen bilakaeraren arabekoak dira: lan-merkatuaren nolabaiteko egonkortasunak eta inflazioa ez igotzeak bermatzen dute familiako ekonomiaren esperotako bilakaeraren gaineko balantze "ia" positibo hori.




## 7 | eta aurrezteko igurikimenak positiboak dira oraindik

EAEko familien aurrezpenaren gaineko igurikimenek neutralak izaten jarraitzen dute, aurreko hiruhilekotik murriztu diren arren (1; - 2 puntu): ondoz ondoko lau hiruhilekotan izan dituzte balio positiboak, 2022ko bigarren sei hilekoan eta 2023an (neurri txikiagoan) erregistratutako ezkortasunetik urrun.

EAEko familien erdiak baino apur batek gehiagok aurreikusten du datozen hamabi hilabeteetan aurreztu ahal izango dutela (% 51,2), eta gainerako familiek (% 48,8) uste dute ezingo dutela aurreztu. Horregatik dira neutralak aurrezteko ahalmenaren gaineko igurikimenak.

Dena den, garrantzitsua da aipatzea ia lau familiatik hiruk (% 73,4) esan dutela azken urtean zerbait aurreztu zutela. Ratio horrek, sistematikoki, gainditu egin ohi du aurreztea aurreikusten dutenen ehunekoa. EAEko familien jarrera aurreztailea erakusten du horrek.

### Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



## 8 | konfiantzaren lau osagaietatik hiru mantendu egin dira

Lehenengo hiruhilekoko emaitzek agerian utzi dute EAEko familien konfiantzaren egonkortasuna. Izan ere, konfiantzaren adierazle orokorra osatzen duten lau osagaietatik hirutan, aurreko hiruhilekokoan antzekoak izan dira igurikimenak; laugarren osagaien bakarrik egin dute okerrera (ekonomia orokorra).

Bilakaera horren ondorioz, EAEko familien konfiantzaren adierazle orokorra negatiboa da (-4), baina neutraltasunetik gertu mantentze da eta 2024ko balioen antzekoak ditu. Lau indize partzialen xehetasunak hau erakusten du:

- Ekonomia orokorraren bilakaeraren gaineko ezkortasunak (-19) okerrera egin du (-6 puntu), eta horrek oztopatu egiten du konfiantzaren amaierako emaitza. Dena den, baikorrak izaten jarraitzen dute langabeziaren bilakaeraren gainean (5); igurikimen hori ez da aldatu aurreko hiruhilekoaz gerostik.
- Baikorrak izaten jarraitzen dute euren aurrezteko ahalmenaren gainean (1), eta apur bat ezkorrak dira familiako ekonomiaren bilakaeraren gainean (-6). Dena den, bi igurikimenek egin dute okerrera (-2 puntu).

### Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2022</u>	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>IIH-24</u>	<u>IIIH-24</u>	<u>IVH-24</u>	<u>IH-25</u>	<u>Aldea</u>	
Familien konfiantza	-11	-9	-4	-3	-4	-2	-4	-2	▶
Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-16	-15	-13	-19	-6	▼
Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-4	-6	-4	-6	-2	▶
Langabeziaren bilakaera	-1	-4	2	2	0	5	5	0	▶
Aurrezteko gaitasuna	-2	-2	2	4	3	3	1	-2	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

---

- prezioek gora egingo dutela aurreikusten dute EAEko familiek
- erosteko unearen (oraingoa) balorazioa apur bat okertu da
- eta baikorrak dira erosketa handiak egiteko igurikimenak
- aldaketarik ez etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoan
- hobera egin dute kontsumo-igurikimeneak, eta okerrera prezioek eta erosteko uneak




## 9 | prezioek gora egingo dutela aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiek prezioen bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak negatiboak dira urteko lehenengo hiruhilekoan (-15); 2024aren itxieran baino are okerragoak (-1 laugarren hiruhilekoan). Okertze horrek (-14 puntu; ondoz ondoko bigarrena balio negatiboekin) aurreikusten du agertokia okertu egingo dela azken biurtekoarekin alderatuta (2023an eta 2024an -6 eta 4)

Datozen hamabi hilabeteetan prezioak azken urtean baino azkarrago igoko direla (% 34,9; ehuneko +6,6 puntu) edo prezioak mantendu egingo direla (% 45,4; ehuneko 1,5 puntu) uste duten familien kopurua hazi egin da. Aldiz, jaitsi egin da datozen hamabi hilabeteetan prezioak geldoago haziko direla uste duten familien ehunekoa (% 19,7; ehuneko -8,1 puntu). Hala, inflazioaren goranzko joera baieztatzen dute eskuragarri dauden datuek (otsailekoak) (+% 3,3 eta +% 3,0, EAEko eta Estatuko urte arteko tasa), azpiko inflazioaren prezioak gutxiago igo direlarik (+% 2,9 eta +% 2,4, EAEko eta Estatuko urte arteko tasan).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?<sup>1</sup> (pertsonek %)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabetei dagokienez; <sup>2</sup> Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

## 10 | erosteko unearen (oraingoa) balorazioa apur bat okertu da


**Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?**

EAEko familiek erosketa handiak egiteko oraingo unearekin lotutako balorazio negatiboa (-16) egin dute; balorazio hori okerragoa da 2024ko laugarren hiruhilekoko baino (-4 puntu). Nolanahi ere, 2021eko bigarren hiruhilekoaz geroztiko bigarren erregistrorik onena da (2024ko laugarren hiruhilekoko erregistroarekin batera, eta 2021eko hirugarren hiruhilekoko berdinduz).

Oro har, EAEko familiek erosteko unearen gaineko balorazio neutroa egin dute (% 70,6; ehuneko +0,6 puntu), baina gora egin dute une txarra dela uste duten familiek (% 22,6; ehuneko +1,4 puntu) eta behera egin du une ona dela uste dutenen taldeak (% 6,8; ehuneko -2,0 puntu).

*Erosteko unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.*

**Erosteko unearen balioztapena<sup>1</sup>**  
(pertsonek %a)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabetei dagokienez


## 11 | eta baikorrak dira erosketak handiak egiteko igurikimenak

**Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup>?**

Bi hiruhilekoz neutralak izan ondoren eta 2024. urtearen itxieran positiboak izan ondoren, erosketak handien gaineko igurikimenez positiboak izaten jarraitzen dute, eta, gainera, hobetu egin dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (4; +3 puntu). Hortaz, hobetu egin dira EAEko familiak kontsumoaren gainean dituzten baikortasuna eta konfiantza.

Zehazki, EAEko lau familietatik batek aurreikusten du datozen hamabi hilabeteetan bere erosketak handiagoak izango direla aurreko urtean baino (% 25,3; ehuneko +4,3 puntu). Hamarretik seik, gutxienez, euren kontsumo maila egonkor mantenduko dela uste dute (% 57,7; ehuneko -3,5 puntu), eta bost familietatik batek baino gutxiagok uste dute euren erosketak murriztu egingo direla (% 17,0; ehuneko -0,8 puntu).

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup> —



<sup>1</sup> Azken 12 hilabetei dagokienez.




## 12 | aldaketarik ez etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoan

Urteko lehenengo hiruhilekoan, EAEko familien % 0,8k adierazi dute hurrengo hamabi hilabeteotan etxebizitza (ia ziur) erosiko dutela. Ehuneko hori aurreko aldietakoen antzekoa da. Etxebizitzen salerosketari buruz eskuragarri dauden datuek<sup>1</sup> (2024ko abendukoak) erakusten dutenez, 2024an zehar higiezinaren 23.173 salerosketa formalizatu ziren EAEn, hau da, aurreko urtean baino % 13,8 gehiago.

### Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



Halaber, egonkor mantentzen da EAEko familiek ibilgailua erosteko duten asmoa. Zehazki, familien % 4,9k esan dute datozen hamabi hilabeteotan ibilgailu bat erosiko dutela (ia ziur). Hala, eskuragarri ditugun azken datuen arabera (2025eko urtarrila-otsaila), 3.961 ibilgailu berri saldu dira Euskadin, aurreko urtean baino % 0,9 gehiago.

### Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



<sup>1</sup> EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); <sup>2</sup> Anfac.

## 13 | hobera egin dute kontsumo-igurikimenek, eta okerrera prezioek eta erosteko uneak

Urteko lehenengo hiruhilekoan eskuratutako emaitzek indartu egiten dute erosketa handiak egiteko igurikimenaren hobekuntza, baina:

- Prezioen bilakaeraren gaineko igurikimenak okertu egin dira azken hiruhilekoan (-15) eta badirudi 2024ko lehenengo hiru hiruhilekoetako baikortasuna aldi baterako baino ez zela izan. Izan ere, 2025ean balio ezkorragoetara itzuli zen, 2023an ikusitako pertzepzioarekin lerrokatuta.
- Erosteke unearen balorazioak okerrera egin du (-4 puntu). Hala ere, negatiboa izan arren (-16), 2022an, 2023an eta 2024an erregistratutakoa baino hobea da (urteko batezbestekoak, hurrenez hurren, -34, -27 eta -19).
- Erosteke igurikimenak dira adierazle partzialen artean positiboak diren bakarrak (+4). Azkenaldian goranzko joera izan du, eta familien kaudimena (enplegua eta aurrezkia) islatzen du horrek.
- Etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa egonkor mantendu da, eta emaitza positiboak erregistratu dira etxebizitzaren salerosketa-merkatuan (urte arteko +% 13,8ko igoera 2024 osoan) eta ibilgailuen salerosketa-merkatuan (urte arteko +% 0,9ko igoera 2025ko urtarrila-otsailean).

### Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2022	2023	2024	II H-24	III H-24	IV H-24	I H-25	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-48	-6	4	5	9	-1	-15	-14	▼
Erosteke unearen balorazioa	-34	-27	-19	-20	-23	-12	-16	-4	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	-11	-7	-1	0	0	1	4	3	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

# ERANSKINA – INDIZEAK

---

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



# I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2022	2023	2024	II H-24	III H-24	IV H-24	I H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-3	-4	-2	-4	▶
• Estatua*	-26	-19	-15	-15	-14	d.e	d.e	
• EB*	-22	-17	-13	-13	-12	-12	-13	▶
○ Frantzia*	-18	-17	-14	-15	-13	-15	-13	▶
○ Alemania*	-20	-15	-11	-10	-10	-10	-12	▶
○ Danimarka*	-14	-8	-5	-4	-4	-6	-10	▼
○ Herbehereak*	-25	-18	-11	-12	-10	-12	-16	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-16	-15	-13	-19	▼
• Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-4	-6	-4	-6	▶
• Langabezia	-1	-4	2	2	0	5	5	▶
• Aurrezkia	-2	-2	2	4	3	3	1	▶
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-48	-6	4	5	9	-1	-15	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-34	-27	-19	-20	-23	-12	-16	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-11	-7	-1	0	0	1	4	▲
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	1,2	0,6	0,5	0,7	0,2	0,6	0,8	▶
• Autoa	6,5	4,3	5,5	4,8	5,8	5,8	4,9	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

\* IV. hiruhilekoko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkio. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat, beraz, 2024ko urteko datuak lehen hiru hiruhilekoak soilik hartzen ditu

\*\* Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

## II euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	<u>2022</u>	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>II H-24</u>	<u>III H-24</u>	<u>IV H-24</u>	<u>I H-25</u>	
<b>Kontsumitzaileen konfiantza-indizea</b>								
• EAE	-11	-9	-4	-3	-4	-2	-4	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-10	-9	-7	-9	-11	-9	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-14	-9	-3	-3	-2	-3	-1	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-11	-6	0	0	2	1	-6	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-14	-12	-2	-1	-9	6	-2	▼
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-10	-7	-4	-3	-3	-4	-5	▶
• Langabea	-19	-23	-17	-13	-16	-13	-9	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-12	-9	0	-1	-5	5	-2	▼
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-22	-20	-16	-18	-13	-14	-17	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-11	-9	-5	-3	-7	-3	-5	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	-1	3	5	2	4	0	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

### III | beste adierazle batzuk

	I H – 24	II H – 24	III H – 24	IV H – 24	I H – 25 <sub>b</sub>	(azkena)
BPG	2,4	2,1	2,0	2,1	--	IV. Hiruhilekoa
Familien kontsumoa	2,1	2,3	2,4	2,5	--	IV. Hiruhilekoa
Afiliazioa	-0,3	1,0	-1,2	1,7	-0,6	urtarrila-otsaila
Erregistratutako langabezia	2,4	-3,3	1,6	-1,1	0,9	urtarrila-otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,5	1,9	1,7	0,9	--	IV. Hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	28,9	-8,4	32,6	-5,1	--	IV. hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-10,6	4,9	-10,4	33,3	31,9	urtarrila-otsaila

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

# ERANSKINA– METODOLOGIA

---

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




# I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonak duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea<sup>1</sup> kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



<sup>1</sup> *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.



## II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

### Osagaiak: konfiantza-indizea

#### Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

## **Fitxa teknikoa**

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2025ko otsailaren 10etik 21era (2025ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

## **Metodologia**

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea [http://ec.europa.eu/economy\\_finance/db\\_indicators/surveys/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm)